



## INDARRA, AURRERA EGITEKO

Gaitza agertu zitzaionetik gaur  
arteko bizitzako ikastaro luzeaz  
sakonean, Haritz Ibarzabal 20



## 100 euroko beherapenarekin estreinatu miele bat

### Miele-ren Eco-Cheque promozioa

Aurrezteko eta ingurunea zaintzeko, aukeratu Miele. 2012/04/16tik 2012/06/16ra, **Eco-Cheque promozioak** 100 euroko beherapenarekin garbigailu, lehorgailu eta ontzi-garbigailu aukera zabala erosteko aukera ematen dizu. Aspiragailuen kasuan, deskontua 30 eurokoa da.

Erosi behar duzun etxetresna-elektrikoa gure banatzaile ofizialean eta Mielek 100 euro emango dizkizu (30 euro aspiragailuen kasuan).

Udaberri honetan bisitatu ezazu Milar Larramendi eta ingurugiroarekin konprometitzea merke aterako zaizu.

Aukeratu Miele. Aukeratu Alemaniako kalitatea.

Azkoiti-Azpeitiko Banatzaile Ofiziala:

**MILAR  
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16  
20720 Azkoitia-Gipuzkoa  
Tel.: 943 851 897



Made in  
Germany



## uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
(Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
uztarria@uztarria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 140.a (2012ko ekaina)  
**Urtea.** XIII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730792 /  
oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** A. Agirrezabala  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren  
laguntzaileak** (erakunde  
publikoak)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



azpeitia  
udala

**Uztarriak  
Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarrria  
Komunikazio  
Taldea ez du  
bere gain hartzen  
herri aldizkariaren  
adierazitako  
esanen eta  
iritzien  
erantzukizunik



## 2012KO EKAINEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

# 16



# 04



# 34

## iritzia

**Inkesta.** Etxea  
kenduko balizute nora  
joango zinateke? **13**

## mamia

**Liebe Azkue.** Moda  
diseinuko ikasketak  
eginda, Beira kolezioa  
aurkeztu berri du **04**  
**Klik!** Garai bateko  
azpeitia eta oraingoa  
argazkietan, Asier  
Sustaetaren eskutik **16**  
**Elkar hartuta.**  
Euskarazko  
hedabideen erronkez,  
Iban Arregirekin **24**

## jakiteko

**Atzera begira.** Jose  
Antonio Larrañaga,  
20 urte Realean  
jokatzen **34**

**Ba al dakizu** maria cristina hoteleko  
Lanak bukatu bitartean hango beirateak  
Azpeitian izan dituzteLa? Uztarrria

# egin zaitez bazkide Uztarrrian



# 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.060** bazkide **30** euro dira urtean.  
**gara** dagoeneko Uztarrrian; 126.540 euroko aurrekontua du  
eskerrik asko denei. Uztarriak 2012. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra'

# LIEBE AZKUE

moda diseinatzailea

## “Baratzako porruetan inspiratu gara”

Marka propio batekin arropa enpresa handien kontra lehiatzea oso zaila, ezinezkoa dela dio. Euskal Herriko moda-merkatuak ere itxura beltza du. 📌 Ainitze Agirrezabala

**M**oda diseinuko ikasketak bukatuta, *Beira* marka sortu berri du lagun batekin. Merkatuan sartu, lekua egin eta lehiatzea dute helburu, baina Euskal Herriko moda-industriaren egoerak arduratzeko moduko itxura du.

### Umetan andareentzat arropa jostea gustatzen zitzazun horietakoa al zinen?

Betidanik ikasi nahi nuen diseinua, baina batxilergoa bukatu arte ez nekien arroparena edo barne-diseinua, zer egin. Modaren munduan gustatzen zaidana da atzetik duen ikerketa lana: tententzien bilaketa, koloreena... Hemen diseinuko moduluak bazeuden, baina ikasketa altuagoak egitera animatu ninduten guraso-

ek, eta Sabadelgo (Herrialde Katalanak) ESDI moda diseinuko goi eskolara joan nintzen.

### Ikasketak bukatu eta gero zer? Ba al dago moda industriarik Euskal Herrian?

Ez. Hemengo markek diseinua igoal bai, hemen egingo dute, baina produktzioa, industria Portugalen, Txinan... dute. Ezin da lehiatu, oso zaila da Zara bati konpetentzia egitea. Tela metroak 20 euro balio digu eta Zaran 16 eurotan duzu jertsea. Bartzelonatik abuztu inguruan ailegatu nintzen eta zer egin ez nekien. Zaila da. Hemen ez dago... Gainera, garai hartan, 2010ean, hemengo enpresak itxi egin zituzten. Loreak Mendian markak, esaterako, produktzioa Galiziarara eraman zuen;

### DATUAK |||||

|||Jaio. 1988ko maiatzak 3.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi tokia. Azpeitia.



Elisa Rivero diseinatzaileak ere itxi egin zuen. Berak kontatu zidan ezin zela hemen ekoiztutako produktu bat mantendu. Miriam Ocarizekin egin nituen praktikak Bilbon eta hark ere laga egin du Espainian lehiatzea. Orain Asiako azokan dihardu. Ikasketak bukatzean ezer egin gabe etxean egotea ez zen kontua, eta urtebeterako Londresera joan nintzen praktikak egin eta ingelesa ikastera. Praktiketean, ordea, puntua egitea zen, eta laga egin nuen. Ikastaro batzuk egiteko aprobetxatu nuen egonaldia.

### Zer lanetan ari zara une honetan?

Bartzelonan elkarrekin ikasi genuen Urretxuko lagun bat etorri zitzaidan Londresen nengoela, eta





elkarrekin zerbait egitea proposatu zidan. Londresen kolekzioa diseinatu eta hona etortzean patroiak atera eta produktua josi genuen. 2013ko udako emakume kolekzioa da eta 'Ego-Cibeles'-era aurkeztu dugu. Ekaina bukaeran jakingo dugu erantzuna, baina lehia handia dago.

#### **Zer-nolakoa da diseinatu duzuen kolekzioa?**

Kaleko arropa da, eraman erraza oso. Telak naturalak dira: algo-doia, seda... Denetik egin dugu: txaketak, alkandorak, galtza mo-

tzak, soinekoak... Kolekzioa diseinatzerakoan Euskal Herriko barazketako porruetan inspiratu gara. ???

Denak horrela geratzen dira. Porrua da zuztar gehiena duen landarea. Porruaren lorea ia inork ez du ezagutzen, bola handi bat da. Gure kolekzioko prenak mutilen patroieta inspiratutakoak dira, forma aldetik zuzenak. Zuztarretako gogortasuna irudikatzen du horrek, baina lorearen sentiberatasunarekin dago orekatuta. Lorearen bolak oso sentsibleak dira

eta hori tela bidez –sedak, transparentziak...– irudikatu dugu. Horrelako loturak bilatzen joan behar duzu. Txuri optikoa, mostaza eta koral-gorrixka koloreen aldeko apostua egin dugu. Estanpatuak lantzea gustatzen zait, baina kolore nahasketa ez da hainbeste eramango.

#### **Kolekzio bat zenbat prenak osatzen dute? Ideia izatetik produktua egitera zer prozesu jarraitzen duzue?**

20tik 25 look-era artean. Eskolako proiektuan sei entregatu behar izan ditugu; *Beira*-rekin, berriz, 22 egin ditugu. Lehenbizi kolekzioaren zirriborroa egiten da. Kolekzioko prenda guztiek ezaugarri batzuk izan behar dituzte komunean. Telek, koloreek, estanpatuek... fusio bat behar dute. Gero patroiak moztu eta modelo batekin probak egiten ditugu. Ondo baditu josi egiten dugu.

#### **Gazte diseinatzaileon lanak ezagutara emateko moduak badituzue?**

Bilboko *Creamoda*-n aurkeztuta nago arropa; Donostiako *Gure moda gaur* lehiaketan ere bai. Halako lehiaketak onak dira jendea ezagutu eta esperientziak trukatzeko. Bizkaian lan asko ari dira egiten moda sustatzeko. Orain Gipuzkoan ere hasi dira, baina hemen lehiaketa bakarra dago. Gure produktua ez da hain merkea, baina kalitate gehiago du, desberdina da. Errazagoa eta erosoagoa da Zarara joatea, baina neuretzako noiz edo noiz egin dut blusaren bat, eta gusta-

tu egiten zait jantzi eta 'nongoa da?' galdetzen didatenean 'ez, neuk egin dut', erantzutea.

#### **Telak-eta nondik inguratzen dituzu?**

Euskal Herrian bilatzea oso zaila da, eta dagoena oso garestia. Surfeko kolekzioa egiteko Barzelonan erosi nuen, eta *Beira* kolekziarako Londresen eta Indian. Telak ezin dira Internetetik erosi, ukitu egin behar dira, ehunak zer jauskera duen ikusi. Aprobetxatu egin behar da, India oso merkea da. Ehun metro telarekin bueltatu nintzen handik.

#### **Esan daiteke inbertsio lana ari zarela egiten, oraingoz.**

Orain momentuan, bai. Gurasoen laguntza ezinbestekoa da. Beraien babesik gabe ezingo nuen ezer egin. Lagunek-eta ezkontzeta joateko eskatzen dizkirate soinekoak jostea. Horrela diru pixka bat atera daiteke.

#### **Vogue aldizkariak ez ditu 16 urtetik beherako modeloak edo oso argalak direnak erabiliko. Zer iritzi duzue pasareletan hezur eta azal dau den modeloak agertzea?**

Egungo gizartean, edertasunaren ereduak argalak, baina argalegi dauenak osasunez ez daude ondo. Zenbat eta argalago, orduan eta politago direla uste dute eta gero eta lan gehiago izango dutela. Kristoren norgehiagoka dago beraien artean eta maila horri eusteko onena izaten jarraitu behar dute, eta ez dute jan behar.

#### **Zein moda diseinatzaile dituzu gustuko?**

Prada asko gustatzen zait; estilo markatua du oso, haren estanpatuak... Kolore aldetik-eta erreferente bezala, berriz, Chloe marka.

#### **Aurrerako zer asmo duzue?**

Enpresa batetarako lana egitea gustatuko litzaidake, asko ikasiko nukela uste dut. Era berean, *Beira* proiektuarekin segitzeko asmoa dugu lankideak eta biok. Hasieran babes hori izatea garrantzitsua da oso. Bestela, baka-rik galduta zaude.\*

“Lagunek-eta ezkontzetarako eskatzen didate soinekoa jostea”

“Telak ezin dira internetetik erosi, ukitu behar dira, jauskera ikusi”

# Txikia izatearen handitasuna

# 7

78. urtea zen eta Orreaga inguruan Europako agintari boteretsuenaren aurrean garai hartako nafarrek bere independentzia aldarrikatu eta kanpoko potentzien esku-hartzeari aurka egin zioten. Handik zazpi mendetara, aldiz, 1512an, Nafarroak bere independentzia galdu zuen Aro Moderno hasiera horretako Europako potentzia nagusiaren mesedetan, Gaztela hain zuzen ere.

Hor bukatu ziren independentzia politiko eta kulturalaren azken arrastoak. Nafarroaren beherakada prozesu luze eta halabeharrezkoa izan zen, Antso Handiak XI. mendean bere goren unera eraman zuen erresuman barne zein kanpo arazoak baitzeuden garai horretarako. Europako monarkia autoritario handiak ezartzen ari ziren garai hartan, Nafarroa lekurik gabe gelditu zen Europako mapa berrian. Gaztela, Aragoi, Frantzia, Ingalaterra eta Errusiako monarkiak sendotu eta hedatu ziren, lurralde eta erresuma txikiagoak barneratuz. Ez zen lekurik erresuma txikiengatik eta gaur egundaino mantentzen den dinamika ezartzen hasi zen, non handiek txikien eskubideak urratu eta mespretxatzen dituzten.

Eredu lokalen bazterketak eta Amerikaren aurkikuntzak eta Asiako aberastasunen usiak internazionalizazioaren prozesuari hasiera eman zion, globalizazio deritzon prozesu honetara iritsi arte. Estatu handien eta bereziki merkatuen diktadura ezarri den garai honetan gehiegikeriek eta eredu administratibo zaharkituen krisiak aukera ematen du Erdi Aroan jatorria duten eskubide eta eredu aldarrikapena berpizteko.

Albako dukea Nafarroa su eta garrez konkistazera bidali zutenak harrituta geldituko lirateke ziurrenik gaur egun oraindik Nafarroako erresuma hark sinbolizatzen zuen Europako egituraren aldarrikapena bizirik dagoela ikusiko balute. Egitura hark herrien muga kulturalak errespetatzen zituen eta kapitalaren mugimenduarentzat oztopo bat zen. Estatu handien interesentzat kaltegarria izanik de-



markel mendizabal

III Nafarroako erresumaren eredu administratibo eta kulturalaren beharra oso agirikoa da

sagerrarazi zuten. Ez zegoen lekurik Pirinioen babesean sorturiko erresuma txiki bezain desberdin batentzat.

## Egitura berrien beharra

Gertaera historiko hartatik 500 urte betetzen diren honetan Nafarroako erresumaren eredu administratibo eta kulturalaren beharra oso agirikoa da. Europako arazoei ikuspegi lokala eman behar zaiela agerian gelditzen ari da. Herrien Europa aldarrikatzeko garaia iritsi da, herritarrengatik gertuago dauden eredu administratiboak sustatuz, eta azken finean, estatu handien gehiegikeriei mugak jartzen hasteko garaia. Gainera, Europako eredu administratibo berri horrek herrien eskubide kultural eta politikoak errespetatuko lituzke eta beraien artean elkarlana sustatzeko aukerak irekiko lituzke. Nazio txikien eskubideak errespetatuz denon ongizatea bultzatzea, hori da jarraitu beharreko bidea.

Garbi dago Erroldanek Orreagan eginiko laguntza dei hura egun zentzuz aldatu da eta Europako nazio historikoak direla bere lekua eta beharra aldarrikatu behar dutenak.✱



1.solairuan gaude



sukaldeak

aukeratu zure estiloa



urrategideko

altzariak & sukaldeak

cm  
círculo  
muebles

Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua  
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)  
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14  
urrategideko@urrategi.eu  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)



# Bizitzaren musika

**N**ire bizitzako momentu askok dute musika banda. Kantu eta talde ezberdinek bizitzako une eta garai ezberdinak ekartzen dizkirate burura. Asko gustatzen zait musika, eta gehiago gustatzen zait musikak oroitzapenak ekartzea; usainek, lekuek eta beste hainbat gauzak ekartzen dizkidan bezala.

Txikitako oroitzapenak ekartzen dizkit Txirri, Mirri eta Txiribitonen *Tortolikak*; baita Son Gokuren kantek ere. Ondoren etorriko ziren Xuxa eta bestelakoak. Oroitzen dut, "handientzako" lehenengo kasettea ahizpak oparitu zidala; The Cranberrisena. Gure Opel Cadet zaharraren soinu banda Benitorea izan zen luzez, hantxe gelditu baitzen, ez aurrera ez atzera. Gure amamaren etxeko soinu banda, oraindik ere, Arrate Irratiarena da, nahiz eta orain Ziriakoren ahotsa falta.

Gogoan ditut gaztarora iritsi aurretik etxean entzundako Barricada edo Negu Gorriak kantak. Sorotan Bele, Urtz, Latzen edo Lin Ton Taunen trikitiarekin lotzen ditut kalera lagunekin irtetzen hasi gineneko urteak. Santotomas eta Elegante Egunak beti lotzen ditut, Etzakiten, Kupelaren eta Alaitz eta Maiderren kantekin. Goizean irteten dugunetik ia ez baita beste ezer gehiago entzuten.

## Eta orain zer?

Gero eta errazagoa omen da disko bat grabatzea. Herrian bertan makina bat musika talde ditugu, bakoitza bere estiloan, musika eginez, kantak sortuz eta entseiatuz.

Azken aldian, kalera irteten naizen bakoitzean talde horietako kideekin akordatzen naiz. Pentsatzen dut frustrantea izan behar duela haien zat kalera irteten eta tabernetako musika entzuteak. Bai larunbat gau edo festa girora irtetea, behintzat. Horiek kantak egin eta behin eta berriro entseiatzen ari diren bitartean, tabernetan 15-20 kantu baino askoz gehiago ez dira ibiliko bueltaka. Eta bitartean herrian, Euskal Herrian, nahiz



||||||| **ihintza agirretxe** |||||

||| Asko gustatzen zait musika, eta gehiago gustatzen zait musikak oroitzapenak ekartzea.

nazioartean taldeak kantak sortu eta sortu, estilo ezberdinetan, ahots ezberdinetan.

Baina ez, tabernetan behin eta berriro musika bera. Hitzaldien aurretik, Benito edo Laboa... agian, Mikel Urdangarin edo Anari... ez dugu askorik berritzen.

Azken aldian *reggeton* estiloko musikaren erritmo pegadizo eta hitz melosoak iltzatzen zaizkit buruan, larunbat gauetan. Ez bereziki gustuko dudalako musika hori. Ez kafea musika horren pean gustatzen zaidalako. Ez, lagunei belarrira builaka musika horrekin hitz egitea gustatzen zaidalako. Besterik ez delako gelditzen ia. Kanta bat, eta beste bat, eta beste bat, eta lehenengoa berriro... dena bere tamainan izaten da ona. Estilo horretako musikarekin nik azkar egiten dut tope, baina tabernetan segi eta segi eta segi...

Bizitzako garai honen musika banda *reggeton* estiloko kantaren bat izango al da? Nik nahiago, *Reggea*. Edo Anari, Micha P. Himson, Skandalue elektrotxaranga, Kerobia edo Egurra ta Kitterren kantaren bat.\*







# JOXE MARI IPARRAGIRRE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Sta. Barbara bidea, z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tel./Faxe: 943721403 / 943721413  
www.iparragirre.net - jniparragirre@edunet.es

## ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia.

### A-D EREDUAK



#### LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatueta.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

#### AURREMATRIKULA:

**Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra (biak barne)**

**MATRIKULA EGITEKO EPEA:**

**Uztailaren 5tik 11ra (biak barne)**

ZERGATIK GAIZKI EGITEN jarraitu,  
ONGI EGIN badezakegu?



Nahastutako bilketa = Kutsadura  
= Zabortegia/Errauste planta



Galkako bilketa = Birziklatzea  
= Osasuna



Osasunagatik  
Ingurugiroak  
kezkatzen gaituelako  
Ongizate arrazoiengatik  
Seme-alabengatik  
Arrazoi ekonomikoengatik

ondO  
egitera  
goazz



NAZARET

2012  
2013

ETORKIZU-  
NERAKO  
PRESTATU

- > Gizarte integrazioa <sup>(Berria)</sup>
- > Salmentak eta merkatariza espazioak kudeatzea <sup>(Berria)</sup>
- > Zuzendaritzari laguntza ematea <sup>(Berria)</sup>
- > Administrazioa eta finantzak
- > Administrazio-kudeaketa

AURREMATRIKULA  
MAIATZAREN 28tik  
EKAINAREN 8ra

Aurrematrikula egin ezazu gure web orrian:  
nazaretzentroa.com

Aldakonea, 36,  
20012, Donostia

T → 1+341 943 326 666  
F → 1+341 943 326 384

W → www.nazaretzentroa.com  
M → nazaret@nazaretzentroa.com



## ||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



### **GORA.** Bost izar euskarari.

Erakuslehoian udaberriko arropa-eskaintza euskara hutsean egin duen dendari honi bejondaiola! Bost puxtarri harentzat! [📌 Uztarrria](#)



### **BEHERA.** Noizko euskaraz?

Apirilko alean ere 'behera'-n argitaratu genuen, iragarkia txineraz idaztearren. Orain gaztelaniaz ere argitaratu du. Euskara erabiltzeari beldurra ote diote? [📌 Uztarrria\\*](#)



Mikel Aranburu.

### ||| **ESANA DAGO** |||

||| “Une onak eta txarrak bizi izan ditut, baina gaurko eguna bizitzeak bakarrik merezi izan du”

**MIKEL ARANBURU**  
Realeko jokalaria ohia

||| “Kontrastea izugarria da, baina hango bizimoduak bete egiten zaitu”

||| “Aurretik hiru edo lau abortu eduki dituen ama bati erditzen lagundu eta haurra ematen diozunean. Halakoetan pentsatzen duzu merezi izan duela”

**ELENA ALBIZURI**  
misiolaria Indian



kutxa



**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonica.net

**Aiertza  
Autoak**





## Tipo natula

**B**izitzan dena da garrantzitsua baina gauza denek ez dute garrantzia berdina. Maiatzaren 3an umezurtz sentitu nintzen. Gertatuko zenaren susmoa izan banuen baina ustea zena, ustel izango zenaren itxaropena, bizirik iraun arazi nahi nuen bihotz nahiz garunetan. Susmoa susto eta sustoa irentsi, beste aukerarik ez.

Sustoaren hurrengo urratsa drama izan liteke baina oraingoan sustoa zorion bihurtu da. Egiak beti arrazoi izaten du arrazoiak egiazkoak direnean. Arrazoiak entzunda,

arrazoiak ausnartuta, sustoa pozaren bebarru, malkoak bai, negarrik ez, tristura kanpora eta alaitasuna nagusi. Bizitzan dena da garrantzitsua baina sentituz, maitatuz, gozatuz egiten bada, are garrantzitsuago bilakatzen da.

Etxe honetan ideia bakar bat jazteko idazkera barrokoa, bihurgunez jositakoa dut gustoko. Irakurtzen ari zarena ulertzeko, azken hizkiraino itxoin araztea dut desio. Bizitzan ordea sinpletasuna dut maite. Bi punturen arteko biderik motzena, beti, bide zuzena



### txetxu urbieta



da. Beraz, bihurguneen xarma utzi, zuzengunea hartu eta helmugara iristeko unea iritsi da.

Sei urterekin ezagutu eta ikuste hutsarekin liluratu ninduen. Bere ibili osoa, oso gertutik baina beti albo batetik adi-adi jarraitu dut, beti beretaz harro. Sinpletasunaren eredu, apaltasunaren maixu, majiaren jabe, gizatasunaren zale... Ez da jainkoa, ez da santu, ez da eredu, berak nahi zuena lortu du, denon artean beste bat gehiago da. Tipo natula. Asmatu dek, suerte.\*

### IKUSTEKO!



### ▲ FAMILIA BEREKO HIRU BELAUNALDI, OHOLTZAN.

Odolaz gain antzerkigintzak lotzen ditu Marikarmen Borda, Alaitz Olaizola eta Amets Cañizares –amama, alaba eta biloba—. Antzerkia idatzi eta egiteaz gain Emakumeen Antzerki Tailerreko animatzailea da Olaizola, eta zaletasun horrekin kutsatu ditu ama eta alaba. Bordak 9 urte daramatza antzerkia egiten; Cañizares, berriz, umetatik dabil.   **Ainitze Agirrezabala\***

## MAIATZEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



maite garmendia



### *Eskerrik asko, tia!*

**AIO.** Amaia, Miren, Mikel eta ni Argentinara joan ginen izekoren ehun urteak ospatzeko. Ez zuen sinesten ehun urte bete zituela. Ospakizun xumea izanagatik benetakoa izan zen. Honelako opari gutxi jasotzen dira bizitzan. Eskerrik asko, tia. Maiatzaren 10ean, inguruan zituenei eskerrak eman eta bere amarekin hitz eginez utzi gintuen. Gerra handirik eman gabepakean joan omen zen. Eskerrak joan ginen!



### *Zorionak Morillo*

**IDAZLE HARROBI OPAROA.** Pozgarria da Azpeitia lortzen ari den kultur antolamendua Kultur Mahaiari esker. Oraingoan, gainera, Morillo saritu dute! Baina, literatur kluba sortu nahian eta ezinean gabiltza. Hainbeste idazle izanda, non daude herriko irakurleak?



### *Zaborra? Hondakina?*

**BEREIZTEN.** Baserritarra kuboa hartuta etxez etxe etortzen zitzaiguneko ez al zen atez ateko bilketa? Gaur egun bosgarren edukiontzira eramaten duguna gure baserritarren txerrien jana zen orduan. Zenbat zabor sortzen genuen orduan eta zenbat orain? Zaborra eta honda-

kina bereizi behar omen dugu orain: hondakina birziklatzen badugu bererabili dezakegu baina birziklatzen ez badugu zabor bihurtzen zaigu. Zaborrak zabortegia behar du eta hondakinak birziklatze zentroak. Zabortegeiek errauskailuak behar omen dituzte. Nora joan nahi dugu? \*



INKESTA

Etxea kenduko balizute nora joango zinateke?

Ainitze Agirrezabala

MILA URIA

jubilatua



“Zaharren egoitzara joan beharko nuke, zer erremedio! Nik

zorrik ez dut, aspaldi ordaindu genuen etxea, baina egoera horrekin pentsatze hutsak kirioak dantzan jartzen dizkit. Halere, nahiago nuke gazteen sasoia eduki, nahiz-eta etxearen hipoteka ordaindu beharra izan”.

MIKEL LANDA

langilea



“Udaletxera joan eta batenbati bibotea aterako

nioke. Hipoteka badugu, baina ez gaude itota. Hainbat familiri etxea kentzen ari dira eta kanpotarrek, berriz, erraztasun handiagoak dituzte. Horrek amorrarazi egiten nau. Hobe horretan ez pentsatu”.

Ekainak 16

Gure herriaren patuaz hitz egiteko, Julio Caro Barojak “identidad en la derrota” delako kontzeptua asmatu zuen.

Nire iritiz, bide erdian gelditu zen gure patua definitzeko garaian, garaitua izateko borrokatu izan duzunaren seinale. Beraz, porrotak eta erresistentziak zizelkatu dituzte euskaldunon egunak eta gauak. Horren ondorioz, gure historia zabuka dabil: itxaropenetik etsipenera eta etsipenetik itxaropenera.

Aurten, indarrez Nafarroa konkistatu zutela bostehungarren urtemuga beteko da. Hegoaldeko azken herrialde konkistatua izan zen Nafarroa. Ondoren, Iparraldeko ordua iritsi zitzairen. Askatasuna galdu ahala, gure identitate politikoa, soziala eta kulturala desagertu nahi izan dituzte inbasoreek. Horretarako, tresna, neurri eta bide guztiak erabili dituzte eta batzuetan lortu dutela konturatzen gara.



miren alcedo

Pasa den maiatzaren zortzian, Nafarroaren konkista salatze adierazpena onartu zuen Azpeitiko Udalak. Harrigarria bada ere, udalbatzan ez zen aho batez onartu. Izan ere, adierazpenean oso hizkuntz “belikoa” erabiltzen zela entzuteko aukera izan genuen. Gerra batez hitz egiten dugunean, maitasunezko hizkuntza erabili behar dugu? Duela 500 urte gertatutakoak zer eragin daukan gure existentzian ez jakitea eta jakin nahi ez izatea akulturazio sintoma da. Inbasoreek arima lapurtu digute.

Duela 500 urte gure arbasoek uste zuten Nafarroaren egoera hamarkada batzuetan zuzenduko zela. Oraindik erakunde arrotzek zapaltzen gaituzte.

Ekainaren 16an Iruñan gure historia gogoratzeko eta gure egia aldarrikatzeko martxa nazionala eta festa antolatuta dago. Gure patua orekatzeko gonbidapena da. Gora Nafarroa!\*

Galdetzen hasita, jango al dira sanjuandegiko jaietan, zapatuan ospatuko den auzo egunean, parrillan erreko dituzten 2.012 solomoak? Uztarría

Antonio Rafaniello  
HORTZ KLINIKA



Kolegiatu zk. 389

-Laser bidezko hortz-zuriketa

-Hortz-inplanteak

Aseguruekin ere lan egiten dugu.

Enparan kalea, 8 - 1.  
Telef. 943 81 67 36  
AZPEITIA



andoni salegi

e,e,e,  
azkeneko hortzaka hori  
tokiz kanpo zauean

batzutan duda iteiat zeatik haon nerekin,  
nere izaeraatik o nere okelaatik.





# Euskararekin, bat



■■■■■■■■■■ eñaut frantsesena ■■■■■■■■■■

**G**auza asko ez dituzu ulertzen. Ez duzu entenditzen estatuan zehar jokatzeko duen kirol elkarte batek zergatik daraman publizitatea euskaraz. Ez duzu ikusten publizitatu nahi duten hori, konparazio batera Malagan erakustea (bueno, ezta Donostian erakustea ere) zer onura dakarkion enpresa kontratatzaileari. Ez duzu aditzen euskal administrazio publiko bateko kultura sailak hainbeste diru Madrilan, edo Zaragozan, euskararen aldeko publizitatea egiten xahutzea. Turismo sailak inbertitu balu sikiera.

Horregatik, pentsatzen zenuen igual atzete egongo zela beste zeozer. Kirol elkarte

hori probintziako handiena baita, jarraitzaile gehien dituen. Eta horrelako taldeak eredu izan daitezke, eta dira. Jarraitzaileengan jarraia aldaketak eragin ditzakete, oso eraginkorrak izan daitezke. Eta zuk pentsatu zenuen elkarte pribatu horrek sinatuko zuela erakunde publikoarekin akordioaren bat, edo zeozer, eta horrela euskararen alorrean ere elkarte horren jarraitzaileek eredutzat hartu, eta izango zuela eraginik elkarte horri emandako zakarrak.

Gero, urteetan kirol elkarte horretako jokalarik, kapitain eta eredu izan denaren omenez (eskerrik asko, Mikel!) azken


partidaren aurretik aldagelan ateratako argazki bat ikusi duzu, hitz hauek dituen: PUTO AMO, NOBLE, IRREPETIBLE, AUTENTICO, GRANDE, PERSONAJE, GENIO, EJEMPLAR, HONESTO, AMIGO, HUMILDAD, UN EJEMPLO, COMPROMISO, CRACK, CAPITAN, RESPETO, LEYENDA, MAESTRO, EQUILIBRIO, SENCILLEZ, TODO; Senak euskaraz ez daudela esaten dizun beste hauek: MAIXU, NAUSI; Eta euskaraz dagoen bakarra: ISPI-LUA.

“Gipuzkoa euskararekin bat” ala “euskararekin, bat”?\*



**▼ 'HANKA HAUNDI'.**

Telefonika aurreko erreketearen irudia zen 'Hanka haundi', ume mordoaren jolas eta sekretuen testigu izana. Frankoren aldean hildakoen oroimenez eraikitako irudia diktadorea hil eta laster kendu zuten, batek daki nora. Indalecio Ojangurennek ateratako argazkia da.



# Azpeitia hura

Argazki bidez osatutako bideo batean garai bateko eta oraingo Azpeitia alderatu ditu Sustaetak. Bildumako argazki batzuk ikusi daitezke hemen. 📍 Asier Sustaeta





### ▲ **GELTOKITIK PEREZ ARREGI PLAZARAKO ZUBIA.**

Garai bateko eta oraingo argazkiekin alderatu du Azpeitia Sustaetak eta horretarako erabili dituen argazkiak Indalecio Ojanguren argazkilari eibartarrarenak dira. Mendirako zaletasun handia zuen Eibarkoak, eta paisaiari ateratzen zizkion argazkiak. Goian, tren geltokitik Perez Arregi plazarako zubia, eta langileak Damasoneko lantegira bidean ikusi daitezke.

### ► **UDALETXEA.**

Hamar minutu inguru irauten duen bideoan herrian izan diren aldaketak ikus daitezke. Bilduma osatzeko argazkiak 'www.guregipuzkoa.net' webgunetik hartu ditu Sustaetak, eta bideoa ikusita argazki mordoskarekin gozatzeko parada dago. 1915ean Udaletxeari ateratako argazkia da eskubikoa.







### ▲ ANTXIETA ETXEA.

Antxieta etxeari ateratako argazki honetan erdi erorita dago eraikina. Ondare historikoa izaki zaharberrituta dago orain.

### ▼ ENPARAN DORRETXEA, 1915.

Enparan Dorretxea argazkitan jaso zuen Ojangurenak, 1915.urtean. Garai hartan, hesiarekin inguratuta zegoen etxe historikoa, eta aurrean idi para ere ikusi daiteke.




### ▼ SANTUTEGIA.

Loiolako Inazioren Santutegiak XX. mendearen hasieran zuen itxura. Inazioren jarraitzaileei ongi-etorria egiteko sarreran pankarta berezia zuen Santutegiak.



### ▼ SANTA ANA PLAZA...

Positiboaren atzealdean honela dio autoreak: "Azpeitia. Santa Ana plazatxoa, barrenean parrokiaren dorrea duela".







### ▲ AZPEITIA, AIRETIK.

Ojanguren (1887-1972) argazkiak ateratzen XX. mendearen hasieran hasi zen. Goiko irudian zerutik hartuta ikusi daiteke Azpeitia. Orain baino zelai eta soro gehiago dago argazkian.



### ▲ SANTIAGO KALEA, 1962.

Santiago kalea, pasealeku eder eta zabalarekin. 1962. urtean ateratako argazkia da. Bideo-muntara Youtube atarian dago ikusgai, eta bisita asko ar da izaten.\*

# HARITZ IBARZABAL

distrofia muskular progresiboa du

“Bizimodu mugatua eduki badakit nola gozatu bizitzak

Bizitzak emandako kolpeen, eguneroko oztopoen eta bizipozen inguruan sakon hitz egin du. 📌 Ainitze Agirrezabala

**E**z zen samurra izan, ez zen erraza izan onartzea 14 eta 18 urte arteko bizia izango zuela. Bizitzak bat-batean buelta eman eta zazpi urte betetzerako jarri zen gurpil-aulkian. Betiko. Gurasoen babesa eta bizitzeko duen indarra lagun, ordea, gaitzerekin bizitzen ikasi egin du.

## **Nolakoa da zure egunerokoa?**

Oso arrunta da nire bizimodua. Goiza lotan igarotzen dut edo telebista ikusten lasai-lasai ohean. Egurdi aldera jaiki eta bazkaldu ostean nire txorrik gustukoene-

ra joaten naiz, logelan dudan ordenagailura. Arratsaldean bi ordu inguru ohean igaro behar izaten dut Bipap izeneko makinari itsatsita. Biriketan anhidrido karbonikoa pilatzen zait eta makinak aire hutsa biriketara bidaliaz anhidrido hori garbitu egiten du. Eguneroko anhidridoa garbitzeari utziko banio, arazo larriak sortuko litzaizkidake, hiltzeko arriskuarekin. Ondoren, berriro ere ordenagailuan aritzen naiz hiru bat orduz, afaltzeko garaia arte. Baina udan, eguraldi ona bada, kalera irten ohi naiz terrazaren batera zerbait





# ki arren zaz”



hartzera, gosea jabe egin arte. Gero, gurasoekin afaldu eta 21:30ak alderako ohera. Bipap makinari lotuta egiten dut lo.

**Gurpildun aulkian egonagatik kalera atera zalea zara.**

Irteteko gogoa edo beharra dudanean beti ditut ondoan laguntzeko prest gurasoak, familiakoak edo lagunak. Alde horretatik izugarrizko zortea dut, inoiz ez naiz bakarrik sentitu. Koadrila bikaina dut txikitatik, batzutan alu xamarrak, baina bihotz honeko mutilak.

**Kalera ateratzean zer oztoporekin egiten duzu topo?**

30 urte daramatzat gurpildun aulkian. Zazpi urte betetzerako jarri nintzen eta guztia aldatzen zaizu bat-batean. Hanken gainean dabilena ez da ohartzen egunero zenbat oztoporekin egiten dugun topo. Garai batean oztopo pila zegoen herrian: espaloietan koska handiak, ikastoletan igogailurik ez, taberna eta denda sarrera ia guztietan koskak, komunak egokitu gabe, leku publikoetan –zine-aretoak eta zezen-plazak– sartzeko arazoak. Udalak herriko mapa bat eman zigun amari ta bioi, herrian aurkitzen genituen oztopoak mapan adierazteko eskatu ziguten. Egia esan, fede handirik gabe egin nuen betebeharra. Erakundeekin beti ibili gara eta ibiltzen gara borroka bizian laguntzak lortu ahal izateko. Baina, Azpeitia herri pilotua izan zen oztopo arkitektonikoen legeak betetzeko orduan, eta gauzak aldatzen hasi ziren poliki-poliki, zorionez. Hobekuntza asko egitea lortu da, eta gaur egun herria nahikoa egokituta dago, nahiz eta oraindik zereginak egon.

**Zer-nolakoa da zure gaixotasuna? Nola hasi zinen?**

Bi urte eta erdi nituela hasi zen guztia. Pneumonia pasatu berri nuen eta oharatu ziren ezker besoko omoplatoko hezurak behar baino gehiago irtetzen zitzaizkidala. Pixkanaka jaten ere nekatzen hasi nintzen, eta orduan hasi ginen medikutan. Hasieran, beso batean edo gorputz erdian polio

||| **DATUAK** |||||

||| **Jaio.** 1975eko uztailak 10.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia.

“Koadrila bikaina dut; alu xamarrak, baina bihotz onekoak”

“Gurasoak nire bizitzako zutabe naqusia dira, eredutzat ditut”

bat pasatu ote nuen aipatu ziguten. Hala, hainbat espezialistengana joan ginen Donostiara. Batzuek ezetz eta besteek baietz, ez ziren ados jartzen.

**Ez zizuten, beraz, gaitza berehala diagnostikatu.**

Aspace elkartera jotzeko gomenatu ziguten. Ezaugarri haiekin ezin zela paralisia izan esan zigun hango medikuak. Analitikak eta frogak egin, medikuen artean eztabaidatu eta distrofia muskular progresiboa izateko aukera ere bazela esan ziguten eta poliklinika partikular batean frogak egitea aholkatu ziguten. Emaitez distrofia muskularra nuela zioten, baina medikuek zioten distrofia duen batek ezin zuela lurretik jaiki ni jaikitzen nintzen bezala. Neurologoak harrিতта zeuden. Aspaceko medikuak, berriz, gogor egiten zuen distrofia zela esanaz, eta Bartzelonako bere irakasle bategana joateko aholkatu zigun; beste batzuk, aldiz, Madrilgo Ramon y Cajalera joateko. Madrilen gehiago izango zela gaitza esperimentatzea esan ziguten eta Bartzelonan, berriz, biopsia egingo zidatela. Hala, Bartzelonako San Juan de Diosera joan ginen eta irakasle hark hartu gintuen, Colomer eta Fernandez medikuekin batera. Biopsia egin eta distrofia muskularra diagnostikatu zidaten, progresiboa, gainera.

### ►Medikutik medikura ibili beharra izan zenuen. Nola oroitzen duzu haurtzaroa?

Oso oroitzen onak ditut, ez dut traumarik. Banekien gaixotasuna ikertzeko egin beharreko frogak zirela. Bi urte eta erdirekin agertu zitzaidan gaitza, oso txikia nintzen gertatzen zitzaidanaz jabetzeko. Era honetako distrofiak agertzea normalagoa da 12-13 urtetik aurrera, eta adin horretan agertu bali zait, zailagoa egingo zitzaidan egoera onartzea. Hain txikitatik agertuta, ia ohartu gabe ikasi nuen gaitzarekin bizitzen. Hori bai, lan izugarria egin zutenak eta egiten jarraitzen dutenak nire gurasoak dira. Gaixotasunak orain arte izandako prozesuan une politak eta zeharo gogorrak bizi izan ditut. Baina hor eduki ditut gurasoak babesa ematen, errealitateari aurre egiten laguntzen eta askotan psikologo lanak burutzen.

### Zeintzuk izan dira unerik gogorrenak?

Sei-zazpi urterekin, gurgil-aulkian jartzeko nengoen garaian, zutik justu-justu ibiltzen nintzen eta noiznahi lurrean nengoen. Orduantxe bizi izan nuen une zail horietako bat. Aulkian jarri nintzenan, berriz, denen begiradak erakartzen nituen, eta ez zitzaidan gustatzen protagonista izatea. Ez zen erraza izan onartzea 14-18 urte bitarteko bizia edukiko nuela. Hori asimilatzeke denbora behar duzu eta psikologikoki gogor egon behar zara. Gaitzak hasieran hartu zuen abiadura hura zorionez moteltzen joan da, eta arazoak arazo oraindik hemen nabili 36 urterekin, inguruko denak nazkatzen. Egia esan, gaitza agertu zitzaidanetik gaur arteko bizitzako ikastaro luze bat izan da. Bizimodua gehiago baloratzen irakatsi dit gaitzak eta nire buruaren mugak non dauden ezagutzen.

### Urte guztietan hainbat gurgil-aulki pasatuko zenituen.

Bai, ugari pasatu ditut! Sei urtetik zazpita bitartean ezarri nintzen aurreneko, txikiegia nintzen gurgil-aulki baterako eta haur aulki

berez bat erosi zidaten. Handik bi urtera, jaunartze inguruan, aurreneko gurgil-aulkia izan nuen. Marka alemaniarra zen, *Meyra*. A zer astinduak hartu zituen, baina harria bezain gogorra zen. 13 urterekin gurgil-aulki motorizatura pasatu nintzen. Guztira halako bi izan ditut eta hirugarrena ekartzeko tan nengoela erabakiz aldatu

nuen. Eskuan nuen indar apurra ia desagertu zitzaidan eta kosta egiten zitzaidan garai batean bezala erabiltzea. Harrezkero eskuko beste pare bat aulki eduki ditut. Baina, duela bost bat urte, minez, ezinezkoa zitzaidan eserita egotea. Lopez Munain neurologoak aholkatuta Hendaia-ko zentro batera joan ginen. Hainbat fi-

sioterapeutak eta ortopedistak aztertu eta neure beharretara egokitutako aulkia egin zidaten. Haiek gaixoaren arabera egokitzen dute gurgil-aulkia eta ez hemen egiten duguna, ortopedia dendara joan, gutxi gorabehera neurriko aulkia aukeratu eta kito.

### Besteek egiten dutena norberak egin ezin duela onartzeak gogorra behar du izan.

Aurreneko urteetan azkar egin zuen aurrera distrofiak eta gauza ugari egiteko gai izatetik poliki-poliki uztera behartu ninduen gaitzak. Baina gurasoek lan bikaina egin izan dute, eta egin nezakeen beste zerbait jartzen zidaten aukeran eta hura potentziatzen ahal egiten ziren arlo guztietan. Dena prozesu bat zen, arazoaren aurrean beste ate bat zabalduko balirate bezala. Gero, neu hasi nintzen poliki-poliki gauzak zailtzen zitzaizkidanean arazoari beste irtenbide bat aurkitzen. Heldua izaterako soberan neukan esperientzia, eta gaur egun zer esanik ez. Bere garaian gurasoek asko erraztu zizkidaten gauzak eta orain ez zait batera gogorra egiten egin ezin onartzea. Ahal bada beste zerbait egin eta ezin bada aurrera jarraitu puntu horri begira geratu gabe, bestela ez dago bizitzerik.

### Egun berri bat hasteko zerk ematen dizu indarra?

Bizitzak eta etxekoek edo ingurukoek. Batzutan bizitza madarikatua den arren, une txiki zoragarriez osatuta dago. Momentu horiek, gehien bat, etxekoen eta lagun ondoan igarotzen ditut. Beraz, nahiko arrazoi iruditzen zait egun berri bat hastea une txiki horien bila abiatzeko, irribarrenen bat aurkitzeko esperantzan.

### Gurasoekin bizi zara. Etxea zure beharretara egokituta izango duzue, ezta?

Bai, zorionez etxe eroso batez gozatzeko aukera dut. Garai batean Azilerrri Berri auzoan bizi ginen baina etxeko karrerara heltzeko aldapa gogorra igo beharra zegoen eta igogailura heltzeko

## ||| MOTZEAN |||||

### OROITZAPEN BAT.

Falta dudana lehengusutxoarekin igaro nuen garaia.

### GALTZEKO TXOKOA.

Kostaldekoko edozein herri; itsasoa aurrez aurre badut aski dut.

### ZERK POZTEN DIZU EGUNA?

Ditudan harremanek, eguna bukatzerako beti dago irribarrea aterako didan norbait.

### ZERK GARAZTEN?

Injustiziek. Dugun gizarteak.

### JATEKO BAT?

Legatza, arraina oro har.

### EDARI BAT?

Ura esanda ez du inork sinetsiko, beraz, txakolina.

### AMETS BAT?

Erakunde baten bidez haur bat dut babestua eta aurrez aurre ezagutzera iristea. ✘



1. Ibarzabal, bere besoetako Garazi "kuttunarekin". 2. Umetako argazkia. 3. Bagitxitxin taldeko korrikalari jantzi zen koadrila, karnabaletan.



eskailerak. Egoerak behartuta, amona zenaren etxera joan ginen, Pablo VI auzora. Hainbat urte igaro genituen han, baina bigarren solairua zen, igogailurik ez, eta hazten nindoan eran gurasoei kosta egiten zitzaien ni besoetan hartuta gora eta behera ibiltzea. Hala, pisu berri baten bila hasi ziren eta eraikitzen hasita zeuden pelotalekuko etxebizitza erosi zuten. Artean egituraren zegoenez, etxea nire beharretara egokitu zuten eta igogailu handiagoa jartzeko eskaera egin. Egokitze lanetan Juan Jose Santesteban zenak lagundu zigun. Hura ere gurpil-aulkian zegoen urteetan, eta ondo baino hobeto zekien zer nolako premiak zeuden etxean eguneroko bizimoduan. Etxe guztian ate zabalagoak jarri genituen; argi-etengailuak nire altueran ipini; bainuaren sarreran 360°ko hutsunea utzi, gurpil aulkiak bira ongi eman zezan... Orduetik egokitze gehiago ere egin ditugu.

#### **Aita eta ama. Zer dira zuretzat gurasoak?**

Zer galdera erraza erantzuteko eta aldi berean zer zaila adierazi nahi dudana esateko. Haurtxoa nintzenetik aritu dira etengabe heziketa egoki bat eman nahian. Diziiplina batean oinarrituta, egin ditudan hainbat akats kontutan hartzen irakatsi didate berriz errepika ez ditzadan; bizitzak ematen dituen 'kolpe' gogorak nola jasan ikasi dut beraiei esker; berriro zutitzen aurrera jarraitzeko; bizitza beste modu batera baloratzen. Gaur egun dudan mugimendu mugatuaren aurretik zoriotsu izaten irakatsi zidaten eta orain bizimodu mugatua eduki arren badakit nola gozatu bizitzaz. Mundura ekarri nuen izaerari itxura eman diote poliki-poliki 'eskulturgileen' modura, neure nortasun propioa errespetatuz. Eguneroko bizitza erraztu didate eta ez pentsa hori lortzea erraza denik. Gurasoak nire bizitzako zutabe nagusia dira eta beti egongo naiz harro haietaz, eredutzat ditut. Beraiei esker naiz gaur naizena.

#### **Oso aktiboa zara sare sozialei dagokienean.**

Garai batean ez zen ordenagailurik eta jokoan makina txikiak erabiltzen nituen. Sekulako bilduma nuen. 10 urte nituela oparitu zidaten aurreneko ordenagailua; beno, hark gutxi zuen ordenagailutik, ZX Spectrum 128K zen. Joakoetarako zegoen prestatua eta jolas batean ibiltzeko 5 minututik 10 minutura bitartean itxoin behar izaten genuen memorizatu arte! Uste dut orduantxe landu nuela nik orain dudan pazientzia. 15 urterekin ekarri zidaten beste ordenagailu bat, ordurako hasita zeuden oraingo itxura hartzen.

Orduetik mundu honek eraman duen aurrerapen prozesu osoa bizi izan dut eta horregatik gustatzen zait hainbeste, ordenagailua 'hazten' ikusi dudalako. O.H.O. amaitu nuenean ikasketekin jarraitzeko kanpora atera beharra nuen eta hori niretzako oztopo handi samarra zen; beraz, ondorengo hiru urtetan informatikako klase pribatuak jaso nituen. Orduan ikasi nituen MS-DOS sistema eragilea, Ofimatica eta AutoCad programak. 17 urterekin herriko enpresa baterako lantxoak egiten hasi nintzen eta zazpi urtez jardun nuen arratsaldetan lanean. Sare sozialen munduak paper ga-

rantzisua jokatu du niretzat, azken urteetan. Komunikatu ahal izateko beste modu berri bat da guztiontzat. Lagun berriak ezagutzeko aukera eman dit eta ezagutzen nituenekin harreman estuago izatekoa. Lagun min berri bat egiteko ere balio izan dit eta berak hori badaki ongi. Internetek 'ate' ugari zabaltzeko aukerak ematen dizkigu eta ni bezala kalera irteteko mugak ditugunontzat beste modu bat izan daiteke denbora pasa gauzak ikusteko, ikasteko eta garrantzitsuena, lagunekin harremanetan jarraitzeko.

#### **Blog bat ere baduzu...**

Bai, *ibarzabaltxoko.wordpress.com*. Duela 5 urte inguru sortu nuen, eta egunero hainbat gai lantzen hasi nintzen: albistekak, inguruko kontuak, lagunarteko txantxak... Hiru urte egin nituen idazten, baina neure burua egunero zerbait idaztera derrigor-tuta sentitzen hasi nintzen une batean eta denboraldi batez idazteari utzi nion. Bloga ezagutzen zutenek idaztera animatzen ninduten, baina etenaldi baten beharra nuen. Ia urte eta erdi egon da bloga geldia, eta aurrean berriz hasi naiz idazten, hori bai, gogoia edo astia dudanean; ez egunero.

#### **Zer beste zaletasun duzu?**

Oso musika zalea naiz; ordenagailuan 48 GB musikarekin baka-rik beteta dut, hortik atera kontuak. Musika gogorra izan ezik era guztietakoa dut gogoko. Zinea ere bai, erraz joaten zait denbora. Gogokoena beldurrezkoak, akziozkoak eta benetako gertaeretan oinarritutakoak ditut. Kirola ere atsegin handiz ikusten dut, eta berdin zait zer, denei aurkitzen diet erakargarritasuna.

#### **Begiak itxita edo irekita, zerekin amesten duzu?**

Amestekotan nahiago irekita itxita baino, baina egia esan, ez dut denborarik galtzen ametsekin. Ametsak ametsean geratzen dira iruditzen zait. Nahiago orain arte bezala errealtatea bizi eta ustekabeen datozen egun zoragarriak amets batean bihurtu.\*



# Elkar hartuta

**Krisi bikoitzari aurre egin eta aurrera begirako erronkak gainditzeko oinarriak lantzen ari dira herri ekimeneko euskarazko hedabideak. ✍️ Mailo Oiarzabal**

**K**risi garaian aldaketa edo apustu handiak egitea ez dela komeni iradokitzen du esatera batek. Krisi hitzak, ordea, justu kontrakoa ere esan nahi du: aldaketa, bilakaera. Azken adiera horri lotu zaizkio herri ekimeneko euskarazko hedabideak. Gainerako ia guztiak bezala krisi ekonomikoak jota, elkar hartu eta erakundeen aurrean sektorearen aldarrikapenak eta beharrak plazaratzeari ekin zioten orain dela pare bat urte. Ez ziren hor geratu, hala ere. Barrura begira ere bazuten zer eginik, gabeziak eta beharrak; sektorea egituratzeko beharra, besteak beste, eta horri heldu zioten. Hausnarketa eta azterketa prozesu bat abian jarri zuten 2011ko hasieran, eta horren ondorioak argitaratu eman dituzte aurten, sektorearen diagnostikoa eta aurrera begirako erronkak uztartzen dituen txostenean. Orain txosten hori aurkezteko erakundeekin bilerak egiten ari dira

Aipatutako prozesuan parte hartu dutenen artean eta erakundeekin batzartzen ari diren hedabideetako ordezkarien artean dago Iban Arregi azpeitiarra, Berria Taldeko hedabideen arduraduna.

## Sektore estrategikoa

"Guk diagnostiko bat egin dugu, propioa dena eta gurea dena, eta diagnostiko horretatik abiatuta pauso batzuk egitea tokatzen zaigu, sektore bezala: elkarrekin bat sortzeko di-

## Zenbakitan

Hizkuntza normalizazioari eta funtzio sozialari lotutako izaera estrategikoaren errekonozimendua irabazita, herri ekimeneko euskarazko hedabideek sarri ahaztu izan den sektorearen beste balio bat ere jarri dute mahai gainean elkarrekin landu duten txostenean: balio ekonomikoa. Hala jaso dute txostenean: "Seiehundik gora pertsona ari gara lanean, ehundik gora komunikabide. 27 milioi eurotik gorako aurrekontua dugu, gizarte segurantzaren eta zergen bidez 7 milioi euroko aberastasuna itzultzen dugu gizartera... Ekonomikoki ere bagarela nor, eta hori ere kontuan hartu behar dela".

"Sektore honetan sentitu izan dugu, askotan, hori ahaztu egiten dela", esaten du Iban Arregik. Diru-laguntzen menpe soilik bizi den sektorearen irudia zabaldu izan dute hainbatek euskarazko hedabide ez publikoek aritzean. "Diskurtso hori asko elikatu" izan dela aitortzen du Arregik, beste datu batzuk ezkutatu edo; jasotako diru-laguntzen aldean hedabide horiek duten eraginkortasuna, esaterako. ✖️

namikan gaude, diagnostikoa erronka batzuk definitu ditugu eta erronka horiek gauzatzera joan behar gara. Baina, horrez aparte, pribatuak izan arren funtzio sozial eta publiko bat daukagun hedabideak gara, eta alde horretatik erakundeekin jarri behar gara, hausnartzera eta eztabaidatzera", azaltzen du Arregik.

Herri ekimeneko euskarazko hedabideena sektore estrategikoa dela nabarmentzen dute hedabideek beraiek landu duten txostenean; hizkuntza normalizaziorako eta euskal komunitatearen kohesiorako sektore estrategikoa. Horren aitortza erakundeen aldetik ere jaso dutela dio Arregik, eta aurrerapauso horrekin gelditzen da, "denok konpartitzen dugun kontua delako. Hori izan da, segurueenez, azken urte hauetako lorpenik handienetakoa: denok konpartitzen dugu, guk bai noski, baina erakundeek ere bai, sektore bezala herri ekimeneko euskal hedabideen sare hau estrategikoa dela".

Hori beti horrela ez dela izan gogora dakar Berria Taldeko arduradunak, eta Uztarriaren adibidea aipatzen du [Uztarriaren sorrerako taldekoa da bera], bilakaera azaltzeko: "Uztarria nola sortu zen? Erakundeen aldetik errekonozimendurik gabe, laguntzarik gabe, lokalik gabe, etxetik lana eginez... Funtzio sozial eta publiko hori betetzeko asmoarekin, eta gabezia bat betetzeko, ezer ez zegoenean. Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen,





Iban Arregi (ezkerretik hasita aurrera), hedabideen ordezkariak Eusko Jaurlaritzarekin berriki egin duten bileran. ||| Alex Larretxi (Argia)

funtzio bezala, zer funtzio betetzen duen Uz-tarriak. Nik uste dut hori denborarekin joan dela lortzen. Gero beste kontu bat da lana nola egin behar dugun, eraginkorrak nola izan behar dugun, aurrera begira ditugun erronkak... Horrelakoak jaso ditugu txostenean”.

Sektorearen errekonozimendu hori nola bideratu behar den ikusi behar, baina egiten ari diren bileretan arduradun politiko baten hitzak nabarmentzen ditu Iban Arregik, “oso esanguratsuak” direlakoan. Hauexek: “Administrazioak bere hurua gehiegi baloratu izan du, eta gutxiegi herri ekimena.

### **Krisi bat, bi krisi**

Krisi ekonomikoak estututa ekin diote nola-bait elkar hartu eta sektorea indartzeari eus-

karazko hedabide ez publikoek. Zentzu horretan, eta erakundeekin indartu nahi duten hartu-eman sendoagoaren baitan, diru-laguntza politikaren aldaketa aztertzea nahi dute. Erakunde nagusiek erabiltzen duten urtez urteko deialdi-sistema “defizita estaltzera” bideratuta dagoela iritzi dio Iban Arregik, eta horrek “garapena asko mugatzen du”. Herrietan egiten diren hitzarmen luzeago edo iraunkorragoen aldeko apustua egin nahi dute hedabideek.

Etorkizuneko erronken eremuan, ordea, ezin ahaztu hedabideen berezko krisia, Interneten eta teknologia berrien eskutik etorri eta azken urteetan komunikazioaren sektore osoa astindu duena, mundu mailan. Herri ekimeneko euskal hedabideak ez dira salbuespena, baina baikortasunez ere begiratzen

diote atakari: “Gauza bat daukagu ona: etorkizuna eta negozio ereduak nondik joango den ez daki inork, ez guk, ez Murdochek eta ez Vocentok –dio Arregik–. Alde horretatik nahiko pareko gaude; ikusi egin behar. Aldaketak etengabeak izango dira, gainera, eta egokitzen asmatu beharko dugu; malguak izaten ikasi behar dugu. eta egia da, beste batzuen aldean, ohituago gaudela larre moztzean. Baina mugitu beharra daukagu, egokitu beharra. Gu nahiko baikorrak gara, oinarriak sortuta eta jarrita ditugula ikusten dugulako”.

Euskarazko hedabideen sarea eta hor lanean ari diren ia seiehun kazetarien indarrak ari da Arregi, oinarriak aipatzerakoan. “Gero eta garrantzi gehiago dauka gertuko informazioak, ez agentzietatik datorrenak, baizik eta norberak bilatu eta sortutakoak. Eta, alde horretatik, euskarazko hedabideak inor baino hobeto kokatuta daude. Gu ez gara enpresa bakar bat, baina funtzionalki ondo saretzen bagara, ondo antolatzen baditugu sei ehun kazetari horiek, hor urrea dago”.\*

||| “Denok konpartitzen dugu, erakundeek ere bai, herri ekimeneko euskal hedabideen sarea estrategikoa dela”

**IBAN ARREGI** [Berria Taldeko hedabideen arduraduna](#)



### Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

### Komunikazio Zerbitzua

#### - Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

#### - Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...



|||alaitz olaizola|||



|||gurutze olaizola|||

# Bunkerra

**A**laitz. Kontu intimoekin natorren oraingoan, komun kontuekin. Herrian festak direnean, arazo bat izaten dun komun dezente batekin topo egitea. Lehen, taberna batzuk "fitxatuta" nizkinan, baina azken aldian, denak ere *antzeko parezido*, salbuespenak bazauden ere.

**Gurutze.** Komunen kontua intimotzat emakumeok hartzen dinagu. Gizonezkoek lasai asko egiten dituen edozein bazterretan. Lehenengo orduetan ezkututzen saiatzen ditun, baina orduak aurrera joan ahala...

**Alaitz.** Gizonezkoak? Eta geroz eta emakume gehiago, aizan! Txikitan kiosko azpiko ko-Baina orain, beste bat deskubritu dinat: beti garbi, handia eta gainera dohan!

**Gurutze.** Zer dion, Loiolako komunetara joan behar dugula gogoia dugun bakoitzean? Han zeuden komun handi eta garbiak!

**Alaitz.** Haiak ere badituen beren zereko zera... Zorua hezea egoten dela! Ez, ez, beste bat, erdikale behean dagoena, Uztarría aldamenekoa, espazio-ontzi itxura daukan hori.

**Gurutze.** Zer esaten ari haiz, bunker itxura duen hori komuna dela? Sekula ez zaidan sartzea okurritu. Botoi batzuk dituela konturaturata nengonan, baina komuna zenik ez ninan sekula pentsatuko. A zer klaustrofobia! Seko mareatu eta bertan gelditzeko ere!

**Alaitz.** Lasai, neska, ahots baten konpainia izango dun behintzat. Hark, sartzerakoan esango din, gehienez ere hamabost minutu baino ez ditunala izango. Beraz, mareatzen bahaiz ere, hamabost minutu pasatzean, komunarekin batera garbituko haute. Mareoa aise pasatuko zain blai ederra hartuta!

**Gurutze.** Hamabost minututan saioa ederra egitea zagon!

|||GURUTZE. "Ze pote eta ze pote ondo! Beste zera horri buruz ari naun, ejem, ejem..."

|||ALAITZ. "Nola diren gauzak... Bakoitzak nahi duena ulertzen duela ba!"

**Alaitz.** Saio? Ze saio?

**Gurutze.** Zera saio... saiatuko z gero, bi ere bai!

**Alaitz.** Bi saio? Pote bat, saio bat, ez?

**Gurutze.** Ze pote eta ze pote ondo! Beste zera horri buruz ari naun, ejem, ejem... Ez zagon gaizki, hi. Beste zera horren ondoren, dutxatuta joango haizela etxera. Poltsan xaboa eramaten hasi beharko dinagu.

**Alaitz.** Nola diren gauzak... Bakoitzak nahi duela ulertzen duela ba! Komenitakoa. Sartu egunen batean, eta gero esango didan.

**Gurutze.** Oraintxe bertan joango naun delako bunker horretara, pixa gurea jarri zaidan eta bat-batean. Je, je!

**Alaitz.** Bakarrik ala konpainian?\*









Osasunagatik  
 Ingurugiroak  
 kezkatzen gaituelako  
 Ongizate arrazoiengatik  
 Seme-alabengatik  
 Arrazoi ekonomikoengatik

ondo  
 egitera  
 goaZZ

Birziklatze tasak

Azpeitia

32%



Zabortegira doana

Usurbil

10%



Azpeitia



**Heziketa Zikloetako  
 Izen-emateak: ekainaren 8 arte**

Informazio gehiago deitu 943744132ra edo hemen: [www.imh.es](http://www.imh.es)



DBH  
 Ondoren?  
**ERDI MAILAKO  
 HEZIKETA ZIKLOA**  
 ikasi, eta gero  
 lanera edo goi  
 maila ikasten  
 jarraitu...

BATXILERGOA  
 amaitzean?  
**GOI MAILAKO  
 HEZIKETA ZIKLOA**  
**aukera berria:**  
**alternantzia**  
 Fabrikazioan eta  
 Muntaian!

... goi-mailako  
**Heziketa Zikloaren**  
 ondoren egiteko  
 Pentsatutako INGENIARITZA:  
**Txandakako  
 Ingeniaritza  
 alternantzia**

**Erdi-maila**

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

*\* berria*

**Goi-maila**

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia

*\* berria*

**Aurten GRADU BERRIA!**

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (bideratzen)



*\* berria*







||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

K	E	K	E	L	I	L	●	A	K	A	K	●
A	L	●	E	T	A	E	●	L	U	L	A	B
I	B	O	●	O	Z	T	A	●	E	S	●	●
R	A	I	●	A	E	T	O	K	O	K	O	K
A	K	A	N	Z	I	●	L	E	K	E	M	●
K	●	E	R	A	I	●	A	S	K	N	M	I
R	A	R	O	I	T	A	R	●	M	●	●	●
U	R	U	B	U	N	A	R	●	●	●	●	●
A	R	A	R	I	A	R	A	●	●	●	●	●
●	A	●	G	●	P	●	A	●	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

I	R	A	L	Z	I	O	T	O	O			
Z	●	R	A	T	E	L	A	K				
A	R	A	L	U	Z	●	A	T				
R	A	R	A	T	P	A	I	N				
A	R	A	M	A	R	●	I	B	A			
A	I	●	B	A	R	E	N	K	A			
G	K	●	N	I	K	A	H	I				
A	I	N	A	K	A	I	N	A				
A	N	A	L	E	P	R	O					

||| ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEN EPEA. Hilak???? XX???? (eguna????) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. ?????-e?ko oparia???? ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI / ||||| ZER DAGO SOBERAN ||||| ZER DAGO FALTAN.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN MAIATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?

TEILATU GAINENKO LEIHOA FALTA DA

IRABAZLEA



Aitor Godoy Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 139. irabazlea. Odrizola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Aitor Godoy, saria eskuetan duela.

**ODRIOZOLA ARDOAK**

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16  
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



## Kakia (Palosandro)

**G**ure lurraldeetan zuhaitz apaingarri izateaz gain, landare errentagarria da, urtero fruta ale asko ematen duelako. Alearen azala distiratsua eta fina da. Heltzean kolore hori-laranja du, sagarraren tamaina eta forma, eta gelatinazko mami nahiko sendoa. Udazken aldera heltzen da, lehen izozteekin, eta melokotoiak baino zapore gozoagoa du.

Elikagai ona da, azukre ugari du, koipe eta proteinen kopuru oso murriztak, eta A eta C bitamina kopuru aipagarriak. Azala malgua izateko, griperik eta katarrorik ez izateko eta arnas-bideak infekziorik gabe mantentzeko gomendagarri ada edozein pertsonentzat.

Zuntzez aberatsa da, batez ere pektina disolbagarriaz; gomendagarria da idorreria arinaren kasuetan. Tentsio altua arintzen ere lagundu dezake, dituen mineralen artean potasio asko eta sodio gutxi duelako. Halere, lehendik odoleko potasio maila altua bada, sendagilearen kontrola behar da.

Kontsumitzeko garairik onena udazken amaiera aldera da. Entsaladan edo postremodura jan daiteke, nahiz eta ohitura handirik ez izan. Pertsona helduek badakite zenbat urte behar izan diren meloiak eta tomate gordinak gure artean arrakasta lortzeko.\*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

## SABIN ZABALETA abokatua



### 1. Zer da zure espezialitatea?

Zuzenbide penal eta zibila.

### 2. Inoiz defendatzea pentsatuko ez zenukenik tokatu zaizu?

Zorionez, ez dut halako kontraesan larririk eduki.

### 3. Krisirik nabari?

Egoera ekonomikoak eragina du. Dibortziatzea

zailagoa da krisialdian; aldiz, lapurreta gehiago dago.

### 4. Abokatu on baten ezaugarriak?

Pazientzia, tratu beroa eta gaian jantzita egotea.

### 5. Abokatuekiko zer pertzepzio du jendeak?

Nahiko txarra; kobratu asko, zerbitzu kaskarra emateko.

### 6. 'Amerikar abokatu'

### ren irudia al du jendeak?

Ez du zerikusirik. Epaitegira joan eta goiz berean 10-12 epaiketa. Berandu hasi eta ia hitz egiten ez dizute uzten.

### 7. Sexu-berezitasunik?

Zibilean ez; penalean prozedura bereziak daude, emakumeak jasaten duen zapalkuntzatik babesteko.\*

Ainitze Agirrezabala

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**lentzeria mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

**Ekain**  
ALBARTARI KLINIKA

Larrialdiak:  
943 15 16 40

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

**PEUGEOT**

**AIZPURU AUTOAK**

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

*lora-etxea . . .*

**Kimubat**

**ASTE BUKAERAN IREKIA**

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



|||ELKARRIZKETA DIGITALA||||| iñigo saizar (Lagun Onakeko kapitaina)

## “mantentzea izaten da Lagun onaken helburua”

|||Lagun Onaken talde nagusian hamaika denboraldi osatu ditu Iñigo Saizarrek (Azpeitia, 1981). Taldeko kapitaina da eta beterranoenen artean bigarrena, David Tejera atezainaren atzetik. Datoren denboraldiari begira bere etorkizuna ez du oraindik argitu.

### Uste baino gehiago kostatu al zaizue mailari eustea?

Azkenurreko jardunaldian salbatu gara eta nahiko luze egin zaigu, atzean ibili gara eta. Gabonak arte nahiko ondo ibili ginen, baina bigarren itzuli txarra egin dugu eta larri-larri ibili gara.

### Zuzendaritzan aldaketa izan duzue klubean denboraldi erdian. Horrek eragin al dio taldeari eta, eragitekotan, nola?

Taldeari ez dio aparteko eragirik egin. Aurreko denboraldian kobroetan-eta atzerapen handiak izan genituen eta, alde horretatik, uste dut guretzat aldaketa onera-



### |||INKESTA|||||

#### Elkartasun Eguneko kanta gustatu al zaizu?

Bai. %44,2.

Ez. %48,7.

Nahiago beste bat. %7,1.

#### |||Oraingo galdera. Nola

baloratzen duzu igande eta

jaiegunetan plaza kotxerik

gabe egotea?

ko izan dela. Jendea askoz ere lasaigo dago.

### Maila pertsonalean, zer moduz ikusi duzu zeure burua?

Beno, hortxe, erdipurdi. Lesio bat izan nuen, beste zenbait partida ere galdu ditut... Baina, beno, bestela ondo. Partida dezente jokatatu dut, azkenean.

### Denboraldiaren balantzea egiterakoan, zer nabarmen-duko zenuke?

Mailari eutsi diogula eta beste denboraldi batez Hirugarren Mailan lehiazteko aukera izan-go dugula.

### Hori al zen helburua?

Bai, helburu hori izaten du Lagun Onak. Beste batek igoal beste zerbait esango dizu, baina mantentzea da helburua. Hainbat taldetan, hor goian ibiltzen direnetan, diru asko mugitzen da, eta Azpeitia bezalako herri batean zaila da.★

|||EFEMERIDEAK|||||

# 1783

**Arrain salgaia arrandegian aurkeztu behar.** Salaketaren bat bazen, etxean aurkitu zitekeen arraina galdu eta lau maraiko isuna eta egun bateko kartzela izango zuten saltzaileek.

# 1830

**Pasealeku txiki bat egitea erabaki.** Aurrez pilotalekua izandako lekuan, egun Iturritxiki bezala ezagutzen den inguruan.

📍 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

*Herria historian zehar liburuak.*

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria.★

|||BIDEOAK|||||



Elkartasun 'flas mobe'-a.★

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak  
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;  
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita





# Present, urrezko aroan

Ezinbesteko jokalaria, Realaren historian partida gehien jokatu duen bigarrena da. 📧📧 Monika Juaristi

**J**ose Antonio Larrañaga (Azpeitia, 1958) oso ezaguna da Azpeitian. Belaunaldi berriek EITBko futbol esatari moduan ezagutuko dute akaso, baina bere bizitzako 20 urtean egindako futbol ibilbideagatik da izatez ezagun Larrañaga.

1974. urtean, 16 urterekin, Lagun Onak futbol taldean hasi zen, eta 1977an Realeko jokalaria izatera pasatu zen. Guztira, 17 urte eman zituen zuri-urdiñez azpeitiarrak, horietako 14 lehen taldean. Donostiako taldearen historian partida gehien jokatu dituen biga-

rren gizona da, 460 partida ofizialekin, hain zuzen.

## Futbol hasierak

Futbolerrako zaletasuna ume-umetatik zuela adierazi du Larrañagak. "Aita ere futboleko ibilitakoa zen, eta beharbada zaletasuna hortik datorkit". Loiola auzokoa da izatez eta "bertan halako zelaiak edukita baloiarekin irtetetea nahikoa zen, arratsalde guztian lagunartean futboleko aritzeko", gaineratu du.

Garai hartan, ordea, ez zuten ez futbol eskolarik eta ez ezer, horregatik, lagun artean baino ez ziren ibiltzen. "Herriko txapelketa bat edo beste" egiten zen, "baina ezer handirik ez". Aukera sortu zitzaionean, Lagun Onakoko gazte mailako taldean sartu zen. 3. mailako taldean ere jokatu zuen denboraldi batez.

19 urte zituenean Realaren deia jaso zuen azpeitiarrak. "Helburua ez zen hori, helburua futboleko jokatzeko zen. Ez zen esperotako deia izan, baina bai ongi etorria", azaldu du.



### Urteak elastiko zuri-urdinarekin

Sanse taldean 3 urtez aritu zen Larrañaga. "Garai hartan lehen mailako taldea osatuta zegoen eta ez zen jende asko igotzen Sansetik, baina niri tokatu zitzaidan eta pixkanaka taldean sartzen joan nintzen". Lehen urtean ez zituen minutu asko izan: "10 partida inguru jokatu nituen, gehiago ez".

Urte hartan bertan Ligako txapeldun izan zen taldea eta Larrañagak oso ondo gogoratzen du Molinon zelaiko garaipen hura: "Jende mordo zegoela gogoan dut, jende pilo bat poztu zen eta han egon zirenak hain pozik ikustea gauza ederra izan zen. Gero, gainera, hona iritsitakoan herriz herri ibili ginen eta jende gaztea, heldua, edadetua eta denetik ikusten zen zorionak ematen. Hura guretzako sekulakoa izan zen, oso berezia".

1980-1981 denboraldiko Liga hura baino gehiago irabazi zuen Larrañagak Realarekin, esaterako: 1981-1982ko Liga, 1982ko Espainiako Superkopa eta 1987ko Errege Kopa. Palmares ezinhobea lortuta "harro" dago. "Nik bizi izan dut hori eta gainera harro nago hor egon naizelako eta Realaren historia garrantzitsuenean azaltzen naizelako. Uste dut 6-7 garetla hor egon ginenenak, eta hori oso garrantzitsua dela iruditzen zait".

Horrenbeste urte Realean pasatuta, "une berezi asko" gogoratzen dituela dio: "Lehenengo partida markatuta geratzen zaizu eta azkena ere bai. Nire kasuan, Anoetan jokatu nuen azkena Athleticen aurkakoa izan zen, eta niretzako Anoetan agurririk onena izan zen; eta hori beti hor gelditzen da. Baina beno, nik uste dut azkenean zerbait irabazten baldin baduzu horrekin gelditzen zarela".

### Nazionala eta internazionala

Euskal Selekzioan eta Espainiakoan jokatu



3



2

1. 16 urterekin Lagun Onaken hasi zenekoa, Garmendipe zelaian. 2. Liga irabazi ostean Garmendipera etorri ziren, Lagun Onaken kontra lagunarteko partida jokatzera. 3. 1987an Errege Kopa irabazita, Zaragozan.

zuen futbolariak. 21 urte azpiko Espainiako Selekzioarekin Europako txapeldun izan zen eta Espainiako Selekzio absolutuan partida bat jokatu zuen. Euskal Selekzioarekin 3-4 partida jokatu zituen.

Hala ere, "oso ezberdinak" direla kontatzen du: "Espainiako selekzioarekin jokatzearena testuinguru normal batean ikusten nuen; azkenean zu futboleko jokatzeko ari zara, estatuko ligan jokatzeko ari zara eta gauzak ondo egiten badituzu deitu egiten dizute, eta horrekin, kontratua ere hobetzen da. Nik deia gustura jaso nuen, horrek gauzak ondo egiten ari zarela esan nahi duelako, eta niretzako hori zen garrantzitsua. Aitorpen bat da jokalarik bezala. Euskal Selekzioa ezberdina da, horra bai joaten zara nahi duzulako, hori azkenean zurea da. Sentimendu bat dago, benetan sentitzen duzu hori hor dagoela eta hor ez dago ez zalantza ez ezer. Hori zurea da eta horrek betetzen zaitu".

## Azpeitiarrik ez

!!! Azken hilabeteen asko entzun da Mikel Aranbururen erretiroa. Larrañagarentzat hori "pena" izan da. "Azpeitiar bezala, lehenengo taldean azpeitiarrik ez egoteak min ematen dit, baina jokalarik bezala ere pena da. Realak jokalarik handi bat galdu du, baina baita pertsona handi bat ere. Erabakia pertsonala da, ez da erraza eta gutxiago kontratu bat eskaintzen dizutenean; ezetz esatea oso zaila da, eta hor ikusten da bera nolakoa den".\*

arte eta diseinu ikastegia

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

uba

Aholkularitza  
Finantza  
Laborala  
Kontableak

Gestioari lanak  
Finanzen administrazioa  
Gestio Inmobiliarria

Tel: 943 157 325 Faxa: 943 157 275  
Enparen kalea, 45 - uba.gi@euskaltel.net

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA  
Tifnoa.: 943 81 58 08  
Faxa.: 943 15 03 62

AZKOITIA

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar

DENDA

gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...

Eliz-kalea, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

## FARMAZIAK (EKAINA)

### EGUNEZ

1-9-20-25-26-28	2-13-14-15-16-17-18-19-21	3-6-11-12-22-29	4-5-7-10-23-30	8-24-27
Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).
943 080258	943 811350	943 811949	943 815974	943 811274

### GAUEZ

1-20-25-26	2-21-22	3-13-14-15-16-17-18-19-23	4-5-24	6-7-8-9-10-11-12-27-28-29-30
Ruiz (Azkoitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 851966	943 080258	943 811350	943 851235	943 815974

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Ekainaren 27an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEA

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ KANPOKO IGERILEKUA.

Ekainaren 16tik irailaren 16ra arte egongo da irekita, egunero (11:00-20:00). 18 urtetik gorakoek 5,75€ ordaindu beharko dute sarrera; adin txikikoek 4,50€, eta langabetu eta jubilatuek 3,75€.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak



# AINHOA ALBERDI

harri-jasotzaile hasiberria

“Nire ametsa plazara ateratzea izan dun betidanik”

Lau arroa eta erdiko zilindroarekin erakustaldia eskainiko du, Sanjuandegiko jaietan, ekainaren 3an. 📌 Ainitze Agirrezabala

**A**ilegatu dun egun handia...

Herri kirolen mundua betidanik gustatu izan zaidan; plazaz plaza ibili izan naun beti. Nire ametsa plazara ateratzea izan dun betidanik, zer sentitzen den bizitzea. Sanjuandegiko festetan irteteko poza ninan, aukera oso ona eman zidan festa batzordeak eta beti eskertuko zienat. Egia esan, albistea eman ninanean ama-eta ez hitunan asko harritu.

**Harria-eta nondik lortu ditun?**

Mundu horretan dabilzanekin hitz egin eta pixkanaka prestatzen hasi nindunan. Urtarrilean materiala inguratu ninan: prakak eta txalekoa Zestoako zapatari batek prestatu zizkidan; harria Aizarnako Jagoba *Gotxerri*-k utzi zidan. Elosu Korta harri-jasotzailearengana ere joan nindunan eta oso ondo hartu nindunan. Bola tokia eta goma utzi zizkidanan. Goenatxo ere behin edo behin etorri izan dun entrenamendua ikustera eta benetan ohore handia dun jende hori nire ondoan egotea. Zorte handia eduki dinat.

**Zer-nola entrenatzen haiz?**

Korrika egiten hasi nindunan, gimnasia joaten ere bai, eta dezente galdu ninan pisua.

Baba beltzak-eta prestatzen zizkidan amak indarra hartzeko. Eskerrak hari! Orain, astean bi-hiru aldiz, gutxienez, neure harri hori ukitu eta gozaten saiatzen naun. Hiru minutuko txandak egiten ditinagu eta saiatuta, izerdia aterata joaten naun entrenamendutik etxera. 20 kiloko egurrezko zilindro bat altxatuz hasi nindunan; gero 30 kilokora pasatu nindunan; ondoren, 40kora. 40tik 50ekora diferentzia dezentea izango zela eta plomoa sartu genionan 40 kilokoari. Eta Sanjuandegin lau arroa pasatxoko zilindroarekin egingo dinat erakustaldia.

**Laguntzaile egokia ere bilatu dun...**

Haritz [Garmendia] txikitatik ezagutzen dinat, eta plazan bera nahi ninan alboan izatea, harria jartzen. Esfortzu handia ari dun egiten niri laguntzeko eta hori eskertzeko dun, ametsa betetzera noan-eta.

**Erakustaldiekin segituko al dun?**

Momentuz, nire poza dun Sanjuandegin ahalgina egitea. Eta, denbora aurrera doan bezala ikusiko dinagu gauzak nola diren. Ez zagon jakiterik. Neu behintzat lanera baino gusturago etortzen naun harria altxatzera.★



1. Egurrezko zilindroarekin entrenatzen gurasoen garajeon, Haritz Garmendia lagun duela.
2. Goenatxo eta Elosu Korta harri-jasotzaileekin.
3. Sanjuandegin altxako duen lau arroa pasatxoko zilindroaren gainean eserita.



# 1960 'Unio' Kuban

**K**ubara itzuli naiz. Bigarren aldiz, uhartea inguratzen duen hesi bat zeharkatu dudala iruditu zait. Hesi ikusezina, atzerritik benetako Kuba ikusten uzten ez diguten albisteek osatzen dutena. Beste aldean, Latinoamerika guztian Iraultzaren garai-pena pozik hartu zuten lagun mordoa utzi dut, nahiz eta gaur egun errezelotan bizi diren, Iraultzaren kontrako jarrera ez dutenean!

Propaganda kontrairaultzailearen biktima dira... Haien eskutitz eta telegramak ditut mahai gainean, bere onetik irtenda eta eskandalizatuta daude, uharte inguratu honetatik bidaltzen ditudan albisteek aztoratuta. Ez da harritzekoa. Antzeko gertatu zitzaidan orain dela hogeitun urte, Euskal Herria bere askatasunen alde borrokan ari zenean, nazioarteko iritziak –albiste agentziek larrituta–, komunismoarekin bat egin genuela uste izan zuenean.

Gutxi sinetsi zuten kalumnia haren kontra esan nuena. Onenean ere, inozotzat hartu ninduten, inkontzientetzat. Hala ere, Kubaren egia Kuban bertan dago, eta ez Kubatik kanpo.

(...) Ez dago iraultza bat, ezta mende honetako gerra ondoko Europa ere, kondentuen zerrenda osoa –eta, are, kondentatu baikoitzari dagokion sententzia– erakuts dezakeena. Kubako Gobernu iraultzaileak, aldiz, badezake.

Eta kontuan hartu behar da herrialdearen egoera psikologikoa ez zela zeharo egokia... Latinoamerikako diktadurarik krudelenak hildako 20.000 lagunengatik, emazteak edo seme-alabak kalera irten ziren. Usteko zen biktimek mendeku hartuko zutela, Sierra Maestrako ezkutalekutik irten ziren haiek justizia egingo zutela, lapurreta egingo zutela etxetan, herriaren haserreak plazak odolez bete zituela. Baina Fidelek Sierra Maestratik zuzendutako kanpainari esker, ordea, Kubako herriak ardura zibiko ikaragarria erakutsi



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Gaur egun, 2.500 preso inguru daude, eta batek ere ez du tratatu txarrik jaso, eta kopurua gutxitzen ari da

du, Europako herrialdeek erakutsi zutena baino askoz handiagoa. Askok espero zuena ez zen gertatu hemen. Kubatarrek beren buruzagietan jarri zuten konfiantza. Lasai eutsi zioten. Auzitegiei utzi zieten justizia egiten. Eta justizia ez zen izan epaiketarik antolatzea besterik... Hiltzaileak heriotzara kondenatzea eta bestelako krimen larriak egin zituztenak kartzelara sartzea. Ia 700 fusilatuta izan ziren. Gaur egun, 2.500 preso inguru daude, eta batek ere ez du tratatu txarrik jaso, eta kopurua gutxitzen ari da, presoek sententzia bete ahal.

Gerra garaian armadako presoek emandako tratuak garbi erakutsi zuten Fidel Castro eta gainerako lider matxinatuak humanitarioak zirela, eta ez prentsa eta irratiek epaiketen ondoren zabaldu zuten munstro odolzale irudi hori. Nik esatera, humanismo horrexek egin zituen, gauza guztien gainetik, iraultzaile. Eta humanismo horrexek berak gidatu zuten boterea hartu ondoko programa, hau da, behar handiena zuten herrikideen miseria arintzea”.

(Iñaki Azpiazu 'Unio'-k 1960an idatzia)\*







PINTURAK - BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA  
GILTZEN KOPIAK - PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia  
Tel.: 943 81 25 66 • Mug. 607 58 89 13  
[www.landetabrikodenda.com](http://www.landetabrikodenda.com)



jarraitu gaitzazu facebook-en



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPEITIA BHI  
LANBIDE HEZIKETA SAILA

## INSTALAZIOA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

(L.H. / F.P. - Erdi mailako ziklo berria)

**AURREMATRIKULAZIOA**  
Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

**HIRU URTETAN ERDI MAILAKO  
BI TITULAZIO LOR DITZAKEZU:**

- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza

**Matrikula:** Uztailak 5etik 11ra

**PRAKTIKAK ATZERIAN (LEONARDO) NAHIZ BERTAN**



Altamira auzoa, Azkoitia • 943 85 21 74 • [azkoitia@urola.org](mailto:azkoitia@urola.org)

[www.urola.org](http://www.urola.org)



# LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

## LANBIDE HEZIKETA - hezkuntza eskaintza

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazioa eta altzari hornikuntza (ZIKLO BERRIA)
- Mekanizazioa

### GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa



## BESTE IKASKETAK: DBH eta BATXILERGOAK

Altamira auzoa, Azkoitia • 943 85 21 74 • azkoitia@urola.org

[www.urola.org](http://www.urola.org)



**innovadental**

Bisita gaitzazu:

**José de Artetxe kalea, 5**  
(anbulatorioaren ondoan)  
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

**943 02 59 55**



**innovadental**

**implanteak**

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora  
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!*

**hartz-klinika**  
**AZPEITIA**n